

“Erromaren gainbehera da hau!”

Txuma Murugarren | Sasoi ilunak

B alde guztiek ote daukate euren A aldea?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Oreretar bat Sopuertan... Gora periferia!

Periferia gogorrena da hau. Ikuspuntuaren arabera, lehen edo azken lubakian gauden arrotzasunaren aurkako infanteria gara.

Ez al zinen B aldeko kantaria?

Betidanik eta halabeharrez nabil nire sentsibilitatearekin bat egiten duen bide okerrean.

Halabeharrez? Euskaldunoi galtzaileak gustatzen zaizkigu-eta!

Gure burua galtzailetzat daukagulako, etengabe ari garelako gure burua inguruko muntroekin konparatzen. Ez dugu txikiak garela ikusi nahi, ez gara ohitu txikiak izaten, eta akonplejatuta gaude.

Herri honetan irabazleak dira akonplejatuak.

Txikiaren miseriari ihes egiteko zortea izan duenari ez zaio barkatzen. Oso zitalak gara tropatik ateratzen den gudariarekin.

Nahiago ditugu “kantu arantxadunak, bihozgabeak, kantu zitalak, inork maite ez dituenak, hondamendi batetik erreskatatuak”... Ederra literatura!

Alde ilunekoak gara, inork maite ez gaituenak, eta minduta gaude, hemen gaudelako, gela ilun honetan, gonbidatuen behin-behinekotasunez... Futbolariak ere behar izaten dute literatura hurrengo partidari buruz hitz egiteko.

Halaxe zabiltzate, futbolariak futbolaz nola, zuen diskoei buruz hizketan.

Gure diskoak saldu eta ezagutarazi behar

ditugula sinetsita bizi gara, gure produktuak jendearentzat ezinbestekoak direla, mundua salbatuko dutela. Baina handitxo naiz jada ezer espero izateko. Are gehiago, nire profesio amateur hau ez zait gehiegi gustatzen.

Segi autoflagelazioan!

Diskoa argitaratzear zela, bankuari mailegua eskatuko niola pentsatu nuen, diskoa erosi eta goitik behera birrintzeko. Ez duzu uste nirea autoflagelazioa baino larriagoa dela?

Hau dena antzerkia dela ulertu dudanetik...

Arte guztiek dute antzerki eta exhibizionismo. Noiz konturatuko dira psikiatrak sorkuntzara dedikatzen garenak oso gaixorik gaudela?

Herriak Zesarri berea ematen dionean, agian?

Plazan kontzertua egonda ere jendeak nahiago du pareko tabernan edaten eta ostatuko musika entzuten egon. Bost axola zaio oholtza gainekoak zer esan nahi duen. Krisi ekonomikoa baino larriagoa da gure krisi etiko eta moralak. Erromaren gainbehera da hau!

Eta zu, hala ere, XXI. mendean diskoak argitaratzen.

Ez dugulako jendearengana heltzeko formula hoberik topatu. Internet arrotza zaigu, ez gara fidatzen, iraganarekin maiteminduta gaude, eta XXI. mendean ere, sortzea da barruan ditugun zauriak ez zornatzeko bide bakarra. ■